



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2009-11-21**

VII. URTEA 1.832 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



IKT Astearen balantze baikorra egin dute; atzo eman zituzten jakitera sarien irabazleen izenak. E. EZEIZA

## Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Zentroa izango da erronka berria

**TOLOSA** Informazio eta Teknologien Asteak izan duen harrerarekin «gustura» daude antolatzaileak; dagoeneko martxan dagoen zentro berriaren proiektuak enpresentzako haztegi bat sortzea du helburu 3

## Elizaren mendeurrena ospatzeko antolaturiko emanaldian jende ugari

**VILLABONA** Dantza eta musika ikuskizuna izan zen atzo Gurean; gaur argazki erakusketa egongo da 6



Oinargi dantza taldekoak, atzo Gurea aretoan. I. GARCIA



Eskualdeko nekazariak kalera atera ziren atzo protesta egitera. E. EZEIZA

## «Inoizko krisirik latzenaren» aurrean, nekazariak protestan kalean

**TOLOSA** EHNEren arabera, azken bost urteetan %26 egin dute behera nekazarien errentek 3

**UNAI ELIZASU** GAI-JARTZAILEA

«Esaldi bakoitzeko elementu guztiak kontzienteki jarriak dira»

**LEITZA** Gai-jartzaileen taldekoa da Txapelketa Nagusian; Mendiluzeren txanda bihar izango da 7

## Tolosako Udalaren etxebizitza-politika salatu du Aralarrek

**TOLOSA** Herritarren beharrak aintzat hartzea eta alokairuko etxebizitzak bultzatzea eskatzen dute 2

# Tolosako Aralarrek Udalaren etxebizitza-politika salatu du

**Politika** » Herritarren beharrak ez dituztela kontuan hartzen diote; alokairuko etxebizitzak bultzatzea eskatzen dute.



Etxebizitzak egingo dituzte eraitsita dagoen Tolosana paper fabrikari.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Aralar alderdiak kanpaina bat abiaraziko du «etxebizitza-politika sozial eta berritzailea bultzatzeko», izan ere, euren ustez, Tolosako Udalak bultzatzen duen etxebizitza-politika «eraikitzaileen interesei begira eginikoa da, eta ez herritarren beharrei begira». Gaiaren inguruko euren iritzia eta proposamenak emateko mahai informatiboa jarriko dute gaur, Triangulon, 11:00etatik aurrera. Eskuorriak banatuko dituzte, eta horrez gain, kartelak jarri dituzte kaleetan.

Tolosako Aralarreko Agurtzane Uzin eta Inaki Irazabalbeitiak etxebizitzaren inguruan azken hilabeteetan eman diren gertaerak aipatu dituzte. «Batetik, Voith-Gorostidiko sustapenean 30 bat etxebizitza tasatu gelditu ziren okupatu gabe bigarren zozketaren ostean, eta ondorioz, Udalak hirugarren zozketa egitea erabaki zuten gure kontrako iritziarekin», azaldu dute. Igarondo-tolosana eremuko eta Amaro paper-fabrikaren lursailako etxebizitzaren proiektua ere jartzen dituzte adibide bezala; babesekoak, tasatuak nahiz etxebizitza librearekin egingo dituzte zonalde horietan.

Halaber, tolosarren artean udalak eta foru-aldundiak eginiko in-

kestaren emaitzetan ere oinarritu dira euren proposamenak egiterakoan. Inkesta horren arabera, tolosar gazteen % 78k Tolosan bizi nahi du; tolosarren % 64k uste du nahikoa etxebizitza-eskaintza dagoela; tolosarren % 84k uste du Udalak alokairua sustatu behar duela; eta babeseko etxebizitzei buruz, gehienek, % 40,4k babeseko etxeak alokairukoak soilik izan behar dutela uste dute.

## Etxebizitza duina eskuratzeko

Uzinek eta Irazabalbeitiak azaldu bezala, «garbi» dute orain bultzatzen ari den etxebizitza-politika «ez dela egokia». «Herritarrei, gazteei bereziki, etxebizitza duin bat eskuratzeko eragozten die, eraikitzaileen interesei begira eginiko politika delako eta ez herritarren beharrei begira», diote. Aralarren ustez, etxebizitza-politika «berritzaile eta sozialak bultzatzeko udalaren aldetik egon den interes eskasa» erraz esplikatzen da kontuan hartuta «hirigintza-operazioak udalaren diru-iturri nagusietako bat izan direla».

Erakunde publikoek bermatu behar dutela herritarrek etxebizitza duina eskuratzeko uste dute;

«oso argi dugu erakunde publiko- en aldetik modu bateko edo beste- ko babesaren bidez etxebizitza ezin direla salmentarako izan eta alokairu sozialeko erregimenarekin behar zaiela, hots, norberaren errentaren arabera errenta». Izan ere, alokairu baliabide publikoak kudeatzeko modu zuzenagoa eta orekatuagoa dela dio Aralarrek eta, aldi berean, «unean uneko egoera pertsonalera moldatzeko gaitasuna ematen du».

## Etxebizitza hutsekin neurriak

Horrez gain, etxebizitza berriak eraikitzea ez dela bide bakarra diote. «Jakina da etxebizitza proportzio adierazgarri bat hutsik dagoela eta inor ez dela bertan bizi». Euren ustez, erakunde publikoek politika eraginkorrak bultzatu behar dituzte etxebizitza hutsak plazaratu atera eta okupa daitezzen. «Horretarako intenziorik bada, neurri fiskal eta legal eraginkorrak bultzatu daitezke, esaterako, etxebizitza hutsak gogorrago zergapetuz», gehitu dute.

Hala, Tolosako Aralarrek hainbat proposamen lizatu ditu Udal mailan, eta horien arabera jokatu «etxebizitza-eskubidea bermatzeko bidean aurrerapauso nabarmena» egingo dela adierazi du, «guztitan baliabide eraginkorra eta justuago izanik».

Proposamen horiek etxebizitza hutsei, alokairu bultzatzeari, salmentazko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea uzteari eta Voith-en saldu gabeko etxebizitzak errentan jartzeari egiten diete erreferentzia.



Errumaniak irabazi zuen iazko finala Euskal Herriaren aurka. A. IMAZ

# Adiskidetasunaren Txapelketa hasiko da bihar Uzturpen

**Gizartea** » 17:00etatik aurrera lau partida izango dira ikusgai Uzturpe frontoian; 12 taldek hartuko dute parte aurtengoan.

## I. TERRADILLOS

Ereite elkarte kulturantzak antolatuta, Adiskidetasunaren Areto-Futbol Txapelketari ekingo diote bihar Tolosako Uzturpe pilotalekuan. Guztira jatorri desberdinetako kideez osaturiko 12 taldek hartuko dute parte. Hain zuzen ere, «euren artean elkar ezagutzeko» bultzatu nahi dute ekimenaren. Guztira jatorri desberdinetako kideez osaturiko 12 taldek hartuko dute parte. Hain zuzen ere, «euren artean elkar ezagutzeko» bultzatu nahi dute ekimenaren. Guztira jatorri desberdinetako kideez osaturiko 12 taldek hartuko dute parte. Hain zuzen ere, «euren artean elkar ezagutzeko» bultzatu nahi dute ekimenaren.

Euskal Herria, Senegal, Ekuador, Esperanza Latina, Rais Euskadi, Errumania, Kolore Guztiak, Sahara, Galizia, Ukraina, Lita Ara-

fu Mezkitza eta Latin Brothers dira parte hartuko duten taldeak. Bihar lau partida jokatuko dituzte 17:00etan hasita. Lehenengo partida Euskal Herria eta Senegal artekoa izango da; bigarrena, Esperanza Latina eta Rais Euskadiren artekoa; hirugarrena Kolore Guztiak eta Sahararen artekoa eta, laugarrena, 20:00ak inguruan hasiko dena Ukraina eta Lita Arafu Mezkitza taldeen artekoa izango da.

## Finala Etorikinen Egunean

Bihar hasiko da ligaxka eta hurrengo asteburuan jarraituko du. 12 taldeak lau multzotan banatuta daude, eta ligaxkan jokaturiko partiden arabera multzo bakoitzeko lehen bi postuetan geratzen direnek jarraituko dute aurrera. Final-laurdenak abenduaren 12an jokatuko dituzte, finalerdia abenduaren 13an, eta azkenik finala abenduaren 19an, Etorikinen Nazioarteko Egunean, alegia.

## » PROPOSAMENAK

■ **Etxebizitza hutsak.** Aralarren ustez, Udalak bultzatu behar ditu «politika eraginkorrak» etxebizitza hutsak merkatura ateratu daitezkeen, horretarako neurriak har ditzaketen gainerako erakunde publikoekin elkarlanean arituz.

■ **Alokairuzkoak lehenetsi.** Euren ustean, Tolosako Udalak errentazko etxebizitzak lehenetsi beharko lituzke, babesa duten etxe-

en sustapenetan. «Etxebizitza horien errentak edo alokairuak bertan bizi direnek dituzten diru-sarreraren arabera izan behar du».

■ **Salmentazko etxebizitzak.** Aurrerantzean, salmentazko babes ofizialeko etxebizitzak zein tasatuak sustatzeari utzi egin beharko liokeela udalak gehitzen dute.

■ **Voith-eko etxebizitzak.** Voith-en saldu gabe gelditu diren etxebi-

zitzak tasatuak Udalak erostea proposatzen du Aralar alderdiak, «Tolosako Lotzen SA Udalaren sozietate publikoaren bidez egin dezala, baliokatastrala ordainduta eta errentan jar ditzala».

■ **Etxebizitza eskubidea.** Errentazko etxebizitzaren udal parkea sendotu beharko litzatekeela dio Aralarrek, «tolosarren etxebizitza-eskubidea bermatzeko».

# Rojo anaiak emaitza onak txapelketetan

**Kirola** » Bihar Munduko Kopako proban parte hartuko du Ioseba Rojok lehen aldiz; Norvegiar izango da eguerdian.

## ERREDAKZIOA

Ioseba eta Imanol Rojo anaiak iraupen eskiko alorrean geroz eta lorpen handiagoak ari dira lortzen. Horren adibide da bihar Munduko Kopako proban parte hartuko dutela.

Tolosarrak Espainiako Selektzio Nagusiko partaideak dira eta hila-bete ugari daramatzate negu hobetako denboraldia prestatzen. Elurretan hainbat kontzentrazio

eginak dituzte, Tignes, Stelvio edota Ransau, esaterako.

Konpetizioei dagokionez, hilaren 7an Finlandiako Inari herrian lehenengo lasterketa izan zuten. Estilo librean 10 kilometroko proban Imanol Rojo junior mailako korrikalarien artean irabazlea izan zen.

Hilaren 15ean, Suedian eta Bruksvalarnan 15 kilometroko proba izan zuten, eta bihar Munduko Kopako proba izango dute Norvegiar. Lehen aldiz parte hartuko du Ioseba Rojok horrelako txapelketa batean. 13:15ean hasita 4x10 kilometro egingo ditu errelebotan, estilo librean. Eurosport telebista katean ikusteko aukera izango da.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 90491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Laburrak

### Etxeko konpostajearen inguruko ikastaroak

**GIZARTEA** • Tolosaldeko Mankomunitateak etxeko konpostajeari buruz antolatutako ekimenen artean, ikastaro bat egongo da. Saioak hilaren 24ean eta 30ean, arratsalde izango dira. Jardunaldi hauetan parte hartu nahi dutenek ondorengo telefono zenbakira deituta eman dezakete izena: 943 67 62 16 edota emailaz mezu bat bidalita, [info@tolosaldea.org](mailto:info@tolosaldea.org) helbidera.

### Soldadu kalea trafikoa itxita egongo da etzi

**AZPIEGITURAK** • Tolosako Udaltzaingoa jakitera eman duenez, asfaltatze lanak direla eta, etzi, hau da, astelehenean, Soldadu kalea itxita egongo da denbora batez. Lan hauengatik kalea trafikoa moztuta egongo da arratsaldetan, 14:00etatik 18:00etara bitartean.

### Elikaduraren inguruko hitzaldia Samaniegon

**HEZKUNTZA** • Datorren asteazkenearako, hau da, hilaren 25erako, elikadurari buruzko hitzaldi bat antolatuta dute Samaniego ikastetxean. Haur Hezkuntzako eskolako erabilerari anitzeko gelan izango da. Arantxa Lorenzo, Dietetika eta giza nutrizioan diplomaturia eta psikologian lizentziaturia izango da hizlaria. Bertara joan nahi dutenen haurtzaindegia zerbitzua ere izango da, baina horretarako, tutoreari jakinarazi beharko diote.

### Bigarren Hezkuntzako Titulua ateratzeko aukera

**HEZKUNTZA** • Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzeko proba libreak abenduaren 11n izango dira. Hau prestatzeko, EPAk saio batzuk antolatu ditu. Bertan parte hartu nahi dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte: gutxienez 18 urte izatea azterketako egunean; irakaskuntza ofizialean matrikulaturik ez egotea eta Gipuzkoan, Araban edota Bizkaian bizitzea. Matrikulatzeko epea etzi irekiko da eta abenduaren 4ra arte luzatuko da.

# Lehendabiziko pauso indartsutzat jo dute antolatzaileek IKT Astea

**Ekonomia** • Lehiberriren hurrengo pausoa Berrikuntzarako eta Lehiakortasunerako zentroa izango da.

#### ERREDAKZIOA

Lehiberri Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroa, Tolosaldea Garatzen eta Enpresa Digitala «gustura» daude lehen Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astearekin. Lehen pauso honen ostean, bide beretik jarraituz, ibilbide luzea egin daitekeela uste dute.

Urriko azken astean, Euskaltel Fundazioak utzitako autobuseko ikasgela mugikorrean, bai eta Tolosako KZ Gunean hainbat tailer egin ziren, eta hauetan, guztira, 135 lagunek hartu zuten parte. Antolatzaileek nabarmendutako gauzen artean, parte-hartzaileen adinarena zegoen. Jose Luis Azkue, Gipuzkoako Foru Aldundiko informazio Gizarterako Sistemen Zuzendari Nagusiak azaldukoaren arabera, Tolosaldeko IKT Asteak adin guztietako pertsonen interesa piztu du. Horren adibide, izena



Azkue, Urdangarin, Bildarratz eta Irastorzaizateko aurkezpenean. E. EZEIZA

eman zutenen %20ak, 50 urte baino gehiago zituen.

IKT Astearen helburua, eskualdeko biztanleak teknologia berriei eskaintzen dituzten baliabideetatik jabetu eta hauetan ahalmentzea da. Hauen erabilpenak, enpresen eraginkortasun eta lehiakortasunean eragin zuzena baitu.

Azkuek agertu zuenez, «horrelako ekimen batetara jendea era-

kartzea zaila da, baina lehendabizikoa izateko, uste baino jende gehiago etorri da». Hori dela eta, datorren urtera begira, egitasmoa errepikatze asmoa dutela baieztatu zuen. Bestalde IKT Astea erdigarritzak jo dute. «Arrakasta handia izan du, eta ikusi dugu, Euskaltel Fundazioak utzitako autobusa, herrietara beharrean, industriaguneetara eramatea egokiagoa dela».

«Pizgarri gisa», jardunaldietan parte hartu zutenen artean tamaina txikiko 6 ordenagailu eraman-garri zozketatu zituzten. Atzo udaltxean burututako ekitaldian jaso zituzten sariak, Marisol Atxukarro, Miren Maite Maiz, Mikel Garraioetxea eta Mari Jose Martinezek.

### Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako zentroa

Jokin Bildarratz alkateak IKT Astearen balorazio positiboa egiteaz gain, aurrera begira, martxan dagoen proiektu baten berri eman zuen atzo egindako agerraldian. Bertan aditza eman zuenez, Lehiberriren hurrengo pausoa, Berrikuntzarako eta Lehiakortasunerako Zentroa sortzea izango da, eta proiektu hau dagoeneko martxan dago.

Hiru milioi euroko aurrekontua du egitasmoak, eta Espainiako Gobernurik milioi bat euroko laguntza jasoko du. Bildarratzek zentroaren lau xedeak zenbatu zituen: errepresentazio gune bat sortzea, hau da, haztegi bat; enpresei laguntzeko laborategi bat eratzea; azpiegiturak eta Tolosaldea Garatzenen egoitza berria.

## «Inoizko krisirik latzena» bizi dutelako, nekazariak protestan

**Ekonomia** • EHNE sindikatuak deituta, atzo goizean, Olarraindik, traktoreekin mobilizazioak egin zituzten.

#### ERREDAKZIOA

«Nekazaritza sektorea, inoiz bizi izan duen krisi egoera latzena pairatzen ari delako» mobilizazioak egin ari dira egun hauetan Euskal Herriko baserritarrak, tartean, eskualdekoak. Atzo, Tolosaldeko hainbat baserritar, Tolosako Ola-



Protestei Olarrain auzoan eman zieten hasiera, Triangulon amaizeko. I.T.

rrain auzoan elkartu, eta traktoreekin mobilizazioak egin zituzten kaleetan barrena. Ondoren, Triangulon elkartu ziren elkarretaratzea egiteko.

Protestekin jarraituz, gaur Madrilen, COAG, ASAJA eta UPA nekazaritza sindikatuek deitutako manifestazioan hartuko dute parte euskal baserritarrek, EHNEk bat egin baitu deialdiarekin.

Sindikatu abertzalekoek luzatutako datuen arabera, azken bost urteetan nekazarien errentek %26 egin dute behera. Bestetik, produktzio kostuak batez beste %34 handitu dira, eta honez gero nekazarien errentaren %80a iritsi dira. Honez gain, beren produktuen truke eskuratzen duten dirua %30 jaitsi da batez beste, eta honek sektore guztiari eragiten dio.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

# Aizkardiren 26. Mendi Astea, astelehenetik aurrera

**Villabona** » Aste osoan zehar emanaldi ezberdinak ikusteko aukera izango da eta igandean mendi ibilaldia eta bazkaria.

## ENERITZ MAIZ

Villabonako Aizkardi Mendi Elkartek, aurten 26. Mendi Astea ospatuko du. Azaroaren 23tik 29rako astean ekitaldi eta ekintza ezberdinak izango dituzte.

Astelehenean izango dute prestatuko lehen ekintza, 20:00etan hasikoa da **Baltoroko Ametsak** proiektzioa. Emanaldi hau Unai Zendoia, Oskar Porras eta Arkaitz Lasak prestatutakoa da. Bertan, Pakistanen bizitutako esperientziak erakutsiko dituzte.

## » 26. MENDI ASTEA, GUREA ZINEMAN

### Azaroak 23, astelehena

■ **'Baltoroko Ametsak'**. Unai Zendoia, Oskar Porras eta Arkaitz Lasaren eskutik, 20:00etan. Pakistana egindako bidaiaren inguruko proiektzioa prestatua dute.

### Azaroak 24, asteartea

■ **'Gu, Pirinioetatik Denalira'**. Patricia Viscarreten etorriko da proiektzioa 20:00etan ematera.

Asteartean, 20:00etatik aurrera *Gu Pirinioetatik Denalira* proiektzioa izango da Patricia Viscarreten eskutik. Asteazkena, hilak 25, Fidel Mendiren *Caucasoko* proiektzioa eskainiko dute. Ostegunean, *Biziturik* proiektzioa izango da Unai Aranburu, Ibai Iriarte eta Aitor Bartolomeren eskutik Gurea Zinemaren 20:00etan hasita.

Ostiralean, *Yosemite* inguruko proiektzioa eskainiko dute herriko gazteen eskutik eta hau ere 20:00etan izango da.

Mendi Asteari amaiera mendi ibilaldiarekin eta jarraian egingo duten bazkari batekin emango diote. Aizkardi Mendi elkarteok, ume eta helduentzako moduko ibilbidea prestatu dute. Igandean, 8:30ean elkartuko dira Olaederra kiroldegiaurrean.

### II. Argazki Rally-a

Azaroaren 15ean izan zen Aizkardi Mendi Elkartek antolatutako II. Argazki Rally-a eta aurten 25 lagunek hartu zuten parte bertan. Gipuzkoako leku ezberdinetatik gerturatu ziren Villabona inguruko txoko eta bazterrak ezagutu eta argazkietan jasotzeko asmoekin.

Aurkeztutako argazkiak, Mendi Astearen baitan ikusgai egongo dira Gurea Zinemaren eta horrela, ikusleek argazkiak ikusi eta beraien gustukoena den argazkiaren aldeko botoa emateko aukera izango dute. Erakusketa, 19:30etik 21:30era egongo da zabalik, hau da, Mendi Asteko ekitaldiak dauden bitartean. Sari banaketa berriz, ostiralean azaroak 27 egingo da, herriko gazteek prestatu duten *Yosemite* proiektzioa amaitu eta gero.



Kalean mahai jolasetan parte hartzen. HITZA

## Gaur gaztelekuaren II. Jardunaldi parte-hartzaileak

**Villabona** » Goiz eta arratsalde gaztelekuaren inguruan ekintza ezberdinak burutuko dituzte.

### E. MAIZ

Gaur larunbata, Gaztelekuaren di-seinu parte-hartzailearekin lotutako bigarren jardunaldia ospatuko dute. Helburu nagusia Villabonako herritarrek Gazteleku proiektuaz informatzea, iritzia ematea eta ondo pasatzea da.

Horretarako goiz eta arratsaldez ekintza ezberdinak garatuko dituzte. Lehenengo saioa, 12:00etatik 14:00ak bitarte egingo dute eta bigarrena 16:00etatik 18:00etara. Ondoren, kontzertua izango dute. Ekintza hauek Gaztelekuan bertan (haurtzaindegi zaharrean) eta Bearzana frontoairen inguruan egingo dira. Herritar guztiek parte hartzea espero da, hau da, adinguztietako herritarrek partehartzea nahi da.

### Goiz eta arratsalde

Panel informatiboak eta iradokizunak jasotzeko kaxa, material bilketa, joku erraldoiak, pin-pon mahai eta bideo proiektzio jarraiak izango dituzte goizez. Guzti horren bidez, gaztelekua zergatik sortu behar den, zertarako, nori zuzendua, nolako funtzionamendua erekin, norekin koordinatuta, zein baliabideekin adieraziko dute.

Bestetik, herritar guztiei zabalduko da deialdiarekin etxean eduki eta erabiltzen ez diren zenbait material Gaztelekuan erabiltzeko uztea izan da: mahai-jokoak, Cdak, DVDak, bideoak, sukaldeko tresnak, posterrak, apaingarriak... Gainera, DBHko 1 eta 2. mailako ikasleek grabatutako bideoak erakutsiko dira bertan. Sketchen eta elkarrizketen bitartez, zerbitzuaren ordutegia eta egutegia, elkarbizitzarako arauak... Eta goiza buka-

tzeko, libreki eta taldeka aritzeko baliabideak nahiz ekintza antolatuak eskainiko dira.

Arratsaldean, palomiten prestatu eta pelikula emanaldia, logo eta izen lehiaketa, buzoi parte hartzailearen margoketa eta futbolin txapelketa egingo dituzte.

Gaztelekuko sukaldean palomita prestatu ondoren, pelikula emanaldia egongo da pantaila handian. Era berean, gaztelekuak izena eta logo propioa topatu behar ditu eta lehiaketa bat antolatuko da horretarako; gaurkoa izango da prozesu horren aurreneko urratsa. Nerabeek proposatuta, herrian nahiz hezkuntza zentroetan Gaztelekuaren inguruko proposamenak eta iritzia jasotzeko buzoi batzuk jarriko dira. Larunbatean buzoi horiek sortuko dituzte estetika propioa emanez. Bukatzeko futbolin txapelketa antolatu dute.

### Kontzertua

18:00etan, jardunaldiari bukaera emateko kontzertua eskainiko da. Herriko nahiz aldameneko herrietako nerabe batzuk osatu berri duten musika taldearen eskutik izango da.

Antolatzaileek gogoratu nahi izan dute Gaztelekuaren inguruko iritzia emateko beste bide bat ere zabalik dagoela. Web-orria, villabonagaztelekua.wordpress.com eta web-orriaren atal ezberdinak ditu: agenda, berri-berriak, dokumentuak, argazkiak, bideoak...

## » II. JARDUNALDIAK

### Gaztelekua

■ **12:00-14:00.** Panel informatiboak eta iradokizunen kaxa, material bilketa, joku erraldoiak eta bideo proiektzio jarraiak.

■ **16:00-18:00.** Palomiten prestatu eta pelikula emanaldia, logo eta izen lehiaketa, buzoi parte hartzailearen margoketa.

■ **18:00.** Kontzertua, herriko eta aldameneko herrietako eskutik.



II. Argazki Lehiaketako parte-hartzaileetako bat argazkia ateratzen. HITZA

## EGUNKARIAREN ALDEKO KANTU JIRA



Azaroak 21 larunbata, Donostian

- 11:30 Hernaniko dultzaineroak, Parte Zaharrean zehar
- 12:00-14:00 Kantu Jira, Trinitate plazan hasita



# Elkarlana



**gipuzkoa aurrera**

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara, indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainera dagoelako.

# Txondor batekin hasiko dute Kultur Astea



Iaz ere azoka egin zuten Kultur Astearen baitan. I. MUJICA

**Larraul** » Hilaren 28an bertso bazkaria izango da Andoni Egaña eta Xabi Payarekin; hilaren 25a baino lehen eman behar da izena.

## ERREDAKZIOA

Astelehenean, hilak 23, hasiko dute hilaren 29an amaituko den Kultur Astea Larraulen. Hasi, txondor bateneraketaekin hasiko dute Kultur Astea eta bukatu, berri, herriko produktuekin osatutako azokarekin egingo dute, nahiz eta arratsaldean ekitaldi gehiago ere izango diren.

Hilak 28an, larunbata, gainera bertso bazkaria izango dute Xabi Paya eta Andoni Egañarekin. Txartelak herriko elkarteetan edo ostatuan eskuratu daitezke hilaren 25a baino lehen.

## » EGITARAUA

### Etzi, hilak 23, astelehena

- **Goizean.** Garai bateko ohiturak berreskuratuz txondorra egingo dute herriko Kultur Etxearen atzealdean.
- **17:00.** Kultur Astearen eta txondorren hasiera ekitaldia txalapartaren laguntzarekin.
- **17:30.** Haurrentzako pelikula Kultur Etxean.
- **21:30.** Helduentzako pelikula Kultur Etxean.

### Hilak 24, asteartea

- **17:30.** Larraulgo argazki diaporama Kultur Etxean.

### Hilak 25, asteazkena

- **17:30.** Azken 10 urteetan herrian egin diren haur antzerkiekin osatutako bideo emanaldia eskainiko dute Kultur Etxean.

### Hilak 26, osteguna

- **19:30.** Felix Baltistan Fundazioaren eskutik Pakistani buruzko *El-kartasuna mendia bide* argazki proiektzioa Kultur Etxean, bertako gatazkengatik bizilekuz aldaraziak izan diren 4 milioi pertsona baino gehiagoren egoera azalduz.

### Hilak 27, ostirala

- **17:00.** Umeentzako merienda. Ondoren eskulanak egingo dituzte Katillu-Txulo Elkarteak.
- **19:00.** Altxorraren bila jokoa egingo dute herrian zehar (antolotzaileek linternak eramateko eskatu dute).
- **22:00.** Mus txapelketa Katillu-Txulo elkarteak.

### Hilak 28, larunbata

- **12:00.** Pilota partiduak.

- **14:00.** Bertso bazkaria Xabi Paya eta Andoni Egañarekin.
- **16:30-18:00.** Erakusketa museoa, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.
- **18:00.** Teresa Lopez ipuin kontalaria *Iturri amaigea* ipuina aurkeztuz Kultur Etxean.

### Hilak 29, igandea

- **10:00.** Azoka herriko produktuekin. Baserrietako produktuak egongo dira eta herriarrek egingo eskulanen erakusketa egingo dute.
- **16:00.** Pilota partidak frontoian.
- **16:30-18:00.** Erakusketa museoa, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.
- **18:00.** Talo eta gaztaina jatea egingo dute Katillu-Txulo elkarteak.

## Elizaren 100 urteak ospatuz

**VILLABONA** » Villabonako elizaren mendeurrena dela, hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun hauetarako. Atzo, esaterako, Gurea aretoan, Oinargi dantza taldekoak, Sofia Quelez bakarkalaria, Myriam Ulanga pianista, Loatzo musika eskolako flauta taldea eta talde instrumentalak, Eresargi Abesbatza eta Oinkari dantza taldekoen emanaldia izan zen. Ikusmin handia piztu zuen emanaldiak herritarren artean, eta horren adierazle da aretoa bete egin zela. Mendeurreneko ekitaldiek jarraitu egingo dute, eta gaur, 12:00etan argazki erakusketa egongo da Gureako erakusgelan. Bihar, bestalde, Meza Nagusia Juan Maria Uriarte Gotzainak emango du, 11:30ean hasita. I. GARCIA



## Sestaon jokatu dute partida Lauburukoek

**IBARRA** » Ibarra areto futboleko taldeak Sestaon (Bizkaia) jokatu du partida bihar 12:30ean. Azken urteetan partida gogorak izan dituzte Lauburuko jokalariek talde honen kontra, baina oraingoan jokari guztiek dute jokatzeko aukera eta beraz, irabaztea espero dute. Gazteenek, beren aldetik, Belabietan izango dute partida 10:30ean, bihar.

## Areto futboleko partidak Kultur Trukearen baitan

**IBARRA** » Ibarra Kultur Truke Hamabostaldiak aurrera darrai eta gaurkoan areto futboleko partidak izango dira nagusi Belabietan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ibarra, Ekuador, Sahara eta Ukrainiako taldeak ariko dira. Asteartean Ibarra Misio Taldeko kideen hitzaldia izango da, 19:30ean Kultur Etxean.



90 URTE BERRITZEN.  
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEKIN.

APROBETXATU EZAZU UNE  
HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artikulu orotarako aseguru zura Citroën berria, errekaratu eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari



GOZATU BAITA ERE C4,  
PICASSO ETA C5 MILLENNIUM  
EREDUEN SERIE BEREZIAN.  
MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.



CITROËN

CITROËN preferre TOTAL

CITROËN C3 7.300€tik

CITROËN C4 HDi 11.600€tik

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€tik

www.citroen.es

# Iruratik Iruñeara eta handik BECera joan nahi du Mendiluzek

**Bertso Txapelketa** » Aitor Mendiluzeren finalurrekoak bihar izango da Iruñeko Anaitasuna pabilioian, 17:30ean.

## ASIER IMAZ

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala eskuetan dauka Aitor Mendiluzek. Saio erabakigarriaren atarian, Iruran bizi den bertsolari fina, hirugarren postuan aurkitzen da, 680 punturekin. Zortzigarren postua berriz, hau da, finalatik at utziko lukeena, 34 puntura dauka.

## Bihar, 17:30ean Iruñean

Mendiluzeren finalurrekoak Iruñeko Anaitasuna pabilioian jokatu da bihar, 17:30ean. Iruran bizi den bertsolariarekin batera, ondo-

rengo bostek abestuko dute: Amets Arzallus, Julio Soto, Iñaki Zelaia, Onintza Enbeita eta Unai Iturriagak.

## Itzuli erabakigarria

Finalurrekoen bigarren itzulia gaur hasiko da, hilaren 29an amaitzeko. 18 bertsolarik ekingo diote azken bide honi eta guztira hiru saio izango dira: gaur Gernikan, bihar Iruñean eta datorren asteburuan Donostiako belodromoan.

Bigarren itzuli hau erabakigarria da. Lehen itzuliko puntuak, saio hauetan jasotako puntuak gehituko zaizkie. Eta amaieran, punturik gehien dituzten zazpi bertsolarik jasoko dute abenduaren 13ko finalean abesteko txartela. Beraiekin batera Andoni Egaña, egungo txapeladunak, kantatuko du Barakaldoko BECen.

## » SAILKAPENA

### Finalurrekoak

#### Lehen itzulia.

1- Maialen Lujanbio	708,5 puntu
2- Amets Arzallus	704 puntu
3- Aitor Mendiluze	680 puntu
4- Jon Maia	679 puntu
5- Miren Amuriza	655,5 puntu
6- Julio Soto	652 puntu
7- Aitor Sarriegi	651 puntu
8- Sustrai Colina	646 puntu
9- B. Gaztelumendi	644,5 puntu
10- Iñaki Zelaia	643,5 puntu
11- Uxue Alberdi	637,5 puntu
12- Jone Uria	634 puntu
13- Onintza Enbeita	631,5 puntu
14- Arkaitz Estiballes	630,5 puntu
15- Igor Elortza	629 puntu
16- Unai Iturriaga	626 puntu
17- Iñaki Gurrutxaga	626 puntu
18- Jon Martin	619 puntu

## » SAIOA ZUZENEAN

### Komunikabideak

■ **Infozazpi Irtatia.** Txapelketako saio guztiak zuzenean eskaintzen ari da.

■ **Bertsoa.com.** Saio guztiak zuzenean emititzen ditu Internet bidez, Txapelketari buruzko informazioarekin batera. Atariaren helbidea: [www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com).



Aitor Mendiluzek, Amets Arzallus, Julio Soto, Iñaki Zelaia, Onintza Enbeita eta Unai Iturriagarekin batera abestuko du bihar, Iruñean. HITZA

# «Esaldi bakoitzean dauden hitz eta koma guztiak oso kontzienteki jarritakoak dira»

## UNAI ELIZASU » Gai-jartzailea

Bertsolariek euren lana egiteko, «osagai» garrantzitsuenetako bat gaia da. Txapelketa honetan, antolakuntza taldeak 8 gai-jartzaileko talde bat aukeratu zuen. Horien artean Leitzan bizi den Unai Elizasu (1980, Donostia) aurkitzen da. Oholtza gainean ibiliko ez baldin bada ere, gertutik jarraitzen ditu taldeko kideak eta aurkezle lanean dabiltzanak.

**Noiz hasi zineten gai-jartzaileak Txapelketa Nagusia prestatzen?** Otsailean hasi ginen lanean. Uda bitartean sei bat bilera egin genituen. Txapelketako saio guztieta-ko hutsune nagusiak modu duin batean beteta uzten saiatu ginen



NEREA LIZARRALDE

bilera horietan. Orain berriz, Txapelketa aurrera doan honetan, uda aurretik egindako hori guztia txukundu, orraztu, hobetu eta eguneratzeko elkartzan gara.

### Denen artean, nola sortzen dituzte gaiak?

Lehenik bakoitzak etxean sortzen ditu gaiak. Gero taldean aurkezten dira eta denen onspena baldin badu gai batek, zein fasetara edo saiotara bideratu erabakitzen dugu.

### Gaiaren garrantziaz jabetzeko, irazuren kartzelako gaia aipatzen da azken aldian.

Azkenean gaia, bertsolariak bertsoetan egiteko duen osagaia da.

Ordu askotako lanaren ondorioz erabakitzen da zein den osagai hori. Gaiaren esaldi bakoitzean dauden hitz eta koma guztiak nahita edo oso kontzienteki jarritakoak dira. Gero aurkezlea ahalik eta argien azaltzen saiatzen da. Irazuren kasuan, tamalez ez zuen gaia ulertu. Seikoteak ulertuko ez balu kezagarria izango zen. Bertsolari batek esan duen bezala, gaia ondo entzun behar da, gero hor egoten baita bertsoetarako aitzakia.

### Etxean pentsatu duzuna oholtzara iristerako, denbora asko pasatzen da.

Lehen esan dudana orrazteko pro-

zesu hori, saioaren aurreko astean bukatzen da. Iruñea eta Gernikako saioak astearte honetan txukundu ditugu adibidez. Azkenean etxean ideia bakarrik sortzen duzu, gero formulatu egin behar da, oholtzan egoteko moduan jarritz.

### Gaiaren batekin damutu al zarete?

Orain artean ez da damurik izan. Nahi bezala atera ez denik egon da baina, gaia sortzean nondik joango den pentsatzea eta denbora gutxian gai horren inguruan bertsoak botatzea desberdina da.

### Orain arteko saioetan kritikarik eduku al duzue?

Ez, oraingoz ez. Arazo nabarmenik ez da egon, alderantziz, hitz onak egon dira. Eta kritikak egotekotan, ziurrenik gai-jartzaileok ere ikusiko genituela. Hau da, gu ere ohartzen gara bertsolariak kantatzen duenean, asmatu dugun edo ez. Nire ustez gai txarrak ez ditugu jarri, egokiagoak eta desgokiagoak agian, baina bertsoetan aritzeko modukoak.

## Arkaitz Olano leitzarra III. Mailako finalean

### ERREDAKZIOA

Aurtengo III. Mailako Euskal Herriko Txapelketan 33 aizkolariak parte hartu dute. Hiru kanporaketa jokatu ondoren, horietatik seik finala jokatu dute bihar, hilaren 22an. Finalisten artean leitzar bat aurkitzen da: Arkaitz Olano.

III. Mailako finala Goizuetan izango da 12:30ean hasita. Olanorekin batera ondorengo aizkolariak egongo dira bertan: Oihan Larretxea, Ugaitz Mugerza, Raul Castro, Juanjoxe Erdozia eta Josu Aizpuru. 54 ontzako 3enbor eta 60 ontzako bi ebaki beharko dituzte.

## Leitzako pilotariak Euskaraz Bai txapelketan

### ERREDAKZIOA

Malerrekan Euskaraz Bai, lehen Bai Euskarari zen proiektua, zabaltzen ari dira. Helburu horrekin hainbat ekitaldi antolatuta dituzte eta horien artean pilota txapelketa. Aurrera Pilota Eskolakoak bertan egongo dira Leitzaren izenean

jokatuz. Partida guztiak Goizuetan jokatu dira, igandeetan eta 10:30ean. Lehen jardunaldia bihar jokatu dute Leitz eta Malerrekan artean. Bigarrena berriz hilaren 29an, Baztan-Bortzirien kontra. Irabazleek finala abenduaren 13an jokatuko dute.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Su egurra.** 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua dagoen su egurra saltzen dugu. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakia: 615 7557 62.

■ **Txakurkumeak.** Braco Alemaniarrak txakurkumeak saltzen dira. Interesaturik deitu ondorengo telefono zenbakia: 943 67 25 76.

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalde:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia.

■ **Leitza.** Txalo produkzioen Ate joka antzezlan zineman 20:00etan, Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta Iker Galarza antzezleekin.  
■ **Tolosa.** Anjel Alkainek *Xabainator* antzezlan arukeztuko du Gu-rea aretoan 20:00etan eta 22:30ean.

### Azoka

■ **Tolosa.** Babarrun Astea: Triangulon 08:00etatik aurrera Ezkoizleen XXII. Babarrun Lehiaketa, azoka berezia, X. Txapela jartzeko Txapelketa Txinparta elkartean 11:30ean, dastaketa 12:00etan, sari banaketa 13:00etan, subasta eta babarrun jatea tabernetan.

### Musika

■ **Tolosa.** El desvan del macho eta Decapante taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Liburu azoka San Frantzisko pasealekuan.  
■ **Tolosa.** Iurreamendi egoitzako elizan Milagrosako Bederatzizurren hilaren 19tik 27ra: goizez lan egunetan 08:00etan eta jai egunetan 09:00etan; arratsalde 16:30ean. Mezaren aurretik erro-sarioa errezatuko dute.  
■ **Tolosa.** Hilaren 28an erretzen uzteko ikastaroa antolatuko dute Euskal Herria plazako gizarte zen-troan, 9:00etatik 15:00etara, eta hiru hilabetetan bi jarraipen saio izango ditu. Prezioa: 100 euro. Uz-ten dutenei 60 euro itzuliko zaiz-

kie. Izen-ematea, udaletxean.

■ **Villabona.** Jesusen Bihotz Sakra-tuaren elizaren mendeurrena: meza Juan Maria Uriarte Donos-tiako gotzainarekin 11:30ean.  
■ **Villabona.** Gurasoen arteko to-paketa. Izena udaleko gizarte zer-bitzuetan eman beharko da azaro-aren 23tik, abenduaren 4a bitarte. Haurtzaindegi zerbitzua aurrez eskatu beharko da eta kuota 12 eu-rokoa da. Bi taldetan banatu dituz-te taldeak: 0-10 urte artekoentzat edota 11 urtetik aurrerakoentzat.  
■ **Villabona.** Hilaren 28an dantza emanaldi berezia Info 7 irratia-aren alde Oinkari, Alurr eta Udaberri taldeekin Olaederran 22:30ean. Sarrerak, Villabonako Amasa ka-fetegia, Larrea, Kixubi eta Ogi go-xon; Ibarraiko Atari, Zubiaurre eta Lurdesen; Tolosako Elkar, Raku, Orbela eta Zunbeltzen; Anoetako Itzulini eta Zizurkilgo Egarrin (hel-duiek 8 euro eta 12 urtetik behera-koek 5 euro). Egunean, 10 euro eta 6 euro.

### Erakusketak

■ **Ibarra.** Vanesa Alzate (Ibarra), Gonzalo Perez (Ekuador), Galo Urbina (Ekuador) eta Beibat Ab-dalahi (Sahara) artisten lanak To-losaldeko Sahararekin elkartea-ren objektuak ikusgai Benito Izagirre kultur etxean 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

### Kirolak

■ **Tolosa.** Oargik mendi eta eskiko merkatu txikia antolatu du hilaren 29tik azaroaren 8ra. Material sal-du nahi dutenek, Oargin utz deza-

kete 18:00etatik aurrera. Informa-zioa, 688 698642 zenbakian.

■ **Villabona.** Aizkardi elkartea-ren 26. Mendi Astea bukatzeko, bihar mendi irteera Olaederra kiroldegi-tik 8:30ean abiatuta eta ondoren, bazkaria.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

### » IRRATIA

**Txolarre irrati**  
**10:45-11:00.** Elhuyar Fundazioaren Quark saioa. **11:00-13:30.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30-14:00.** Albistegia - Info 7. **14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Elhuyar Fundazioa Quark saioa. **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7.

### » TELEBISTA

**28 kanala**  
**08:30.** Ur eta lur **09:00.** Alex eta Alexis  
**09:30.** Tolosaldean Gaur **10:00.** Ikus-ten **10:30.** Ilunpean **11:00.** Ilunpean **11:30.** Tolosaldean Gaur **12:00.** Perre-txikoak **12:30.** Zahar berri **13:00.** Nono-ghan **13:30.** Tolosaldean gaur **14:00.** Elizondo azoka **15:00.** Planik bai **15:30.** Tolosaldean Gaur **16:00.** Golb Tb. \*(12:30etik 16:30era bitarteko blokea lau orduko errepikatuko da).

**HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Liburuek hartu dute San Frantzisko

**TOLOSA** ■ Durangoko Liburuaren Azoka gertu dugu eta Tolosan, urtero bezala, motorrak berotzen hasi dira jada. Atzo hasi eta asteburu guztian zehar Liburu Azokan genero guztietako liburuak, diskoak, jostailuak,... eros daitezke. Babarrun eta babarrun artean literatura pixka bat gomendagarria ere bada... R. CALVO

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Ekaitz (Tolosa).** Gaur 5 urte. Ondo pada zure urtebetetze egunean.

agurrak urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

### Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29 €**  
Tolosako xaxuak  
Txakolin txakolatea  
Jagurti turroia masusta garrarekin  
Aktikoa eta mertxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50 €**  
Mandarina turroia boiur zuzarekin  
Txakolate turroia alimendekin  
Mertxika turroia txakolatearekin  
Jagurti turroia masusta garrarekin

### EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

saskia **44 €**  
Osoa-laitilo andi gatzua, 300 g  
Nyflomako giletaketa, 150 g  
Basoerri besoa, 100 g  
Etxeko txakolate lodia 300 g  
Sagar dulzera, 300 ml  
Agiñako pipernak, 300 ml  
Cetariako hegaltzura, 100 g  
Zanburu zurik, etiketarik gabeko, 3x12,4l



Miazabago andi gatzua, 200 g  
Fale gris bloka, 150 g  
Etxeko besoa lodia 150 g  
Basoerri besoa, 100 g  
Miltsole ezka, 100 g  
Agiñako pipernak, 300 ml  
Cetariako hegaltzura, 100 g  
Pikillo ezka, 200 g

saskia **59 €**

## Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943 30 43 45  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info

Bidalaketa gastuak doan

saskia!

